

Bidaia

Kuala Lumpur, Malaysiako tigrea



Asiako hiririk zirraragarrienetakoa Kuala Lumpur da, Malaysiako hiriburua. Ez da oso handia, eta bi milioi lagun ere ez ditu. Baina oso bizia da, hazkunde ekonomikoan sartua dago, eta euren artean desberdintasun handiak dituzten kulturak ditu.

KL hirian, era laburtu horretan deitzen diote bertakoek, bada irudi tipiko bat: Petronas Dorreak. Bi etxe-orratz hauen jabea Petronas da –hortik dator kie izena– Malaysiako petrolio-etxerik nagusiena. Dorre biki hauek munduko garaienak dira, 2001eko erasoak New Yorkekoak bota zituenetik. Bisita etsigarria gerta daiteke ez dutelako goraino (425 m) igotzen uzten, bi dorreak lotzen dituen zubi pareraino (250 m) baizik.

Petronas Dorreak bakarrik ez, badira arkitektura lan gehiago ere eder askoak hiriburuan. Menara KL Dorrea ere oso deigarria da, edo aireportua, modernoa oso, edo metroa, garbi-garbia eta beti garaiz dabilena.

Hiriburutik gertu beste hiri bat ari dira altxatzen: Cyberjaya. Goi mailako teknologiadun enpresak kokatu nahi ditu han Gobernuak. Malaysia ez da egun herrialde aberatsa, baina ekonomia zitsu bizian ari da indartzen. Dena den, landa gunek oso txiroak dira, nahiz eta Kuala Lumpur Asiako hiririk arrakastatsuenetakoa izan.

Kuala Lumpurrek, eta Malaysia guztiak, duen berezitasunetako bat kultura aniztasuna da; malaysiarrak gehiengo dira, musulmanak erlijioari erreparatzen badiogu. Baina txinatarrak ere ez dira gutxi, beraz, taoistak edo budistak erlijioz. Eta bada beste erlijio bat ere, hindua, gutxiengo indiarrarena. Beraz, nahiz eta hinduen edo budisten tenplu ugari izan, meskitak daude gehienbat.

Kultura aniztasuna bai, baina uztartekarik ez dago, norbera bere aldetik dabil eta. Txinatarrak txinatarrakin elkartzen dira eta hinduak hinduekin. Komunitate bakoitzak bere eskolak ditu, eta bertan nor bere kultura erakusten du, baina guztietan irakasten dira Malaysiera eta ingelesa. Orain artekoan ez da sortu kultura arteko aparteko gatazkarik. Baina azken boladan liskartxoak ari dira sortzen, agintean musulmanak direlako nagusi, eta geroz eta arau islamiar gehiago sartu nahi dituztelako, eta ez dute hori begi onez ikusten ez txinatarrak, ez hinduek.



Hala ere, arau islamiarrak ezartzerakoan Malaysia baino zorrotzagoak dira, adibidez, Pakistan eta Iran, edo arabiar herrialdeak. Malaysian emakumeak ilea agerian eraman dezake, eta nahierara jantzi. Baina bere burua musulman zintzotzat daukan andrazkoak beloa jantziko du. Hiriburuan ez da batere arraroa minigona daraman neskaren alboan beste bat ikustea buru eta hanka tapatuta eginda. Jatekoan ere ezin esan da ezpal berekoak direnik: musulmanek ez dute txerrikirik jaten, hinduek ez dute behia jaten, eta txinatarrak berrix, denetik. Malaysian alkohola duen edozein edari har daiteke, garagardoa barne, baina musulmanek ez dute alkoholik dastatzen eta txinatarrak, hauek askotxo. Lan egutegia berriz korapilatsua da, hiru erlijioetako festak errespetatzen dira eta. Errespetuaren datu adierazgarri bat: musulmanak Ramadan garaian daudenean egun osoan barau egiten dutenez, hinduak eta txinatarrak saiatzen dira jendaurrean ez edaten, eta ez erretzen.



Britainiarrei esker dago kultura aniztasun hau. Europarrek Malaysia XIX. gizaldian konkistatu zuten. Kautxu arboladietara jendea eraman zuten Indiatik eta Txinatik. Beraz, eskubide osoz dira hauek Malaysiar, azken bost belaunaldietan han baitira. Baina euren kulturari eutsi diote batzuek eta besteek, euren berezitasunei.

Malaysia 1857an gelditu zen britainiarrengandik aske, baina badu hauen ukitua zenbait ohituratan. Adibidez, gidatu ezkerretik egiten dute, eta bigarren hizkuntza ingelesa dute. Hizkuntza hori

darabilte hain zuzen aipatutako hiru kulturek euren arteko harremanetan.

Exotismoz betetako jomuga turistiko bihurtu da Malaysia, hotel ederrak dituelako eta hondartza ederragoak. Eta markako genero ugari eros daiteke. Beste kontu bat da marka hori bene-benetakoa izatea, edo benetakoen itxura besterik ez izatea. Kontuak kontu, turismoa ekonomia baliabide nagusienetakoa da.

Kuala Lumpur hiriburuak oihana du inguruan. Munduan oso paraje gutxi du horrenbeste baso. Klima beroa du, eta hezea; 25 gradutik gora beti. Hemendik harako hegaldiak 14 ordu irauten du, eta ordu diferentzia handia da oso, hemen eguna argitzerako eguerdia da han. Beraz, ezinbestean, lehen egunetan behintzat, nekea sentituko du bidaiariak. Onena lasaitzea izango da, eta dena berehala ikusi nahi ez izatea. Horixe da hain zuzen KL Malaysiako tigrea otzantzeko bide bakarra.

HABE aldizkaria, 2009ko urtarrileko alea, 396.zenbakia. Egokitua.

13. Zein izango litzateke testu honen gai nagusia?

- A. Malaysiako Kuala Lumpur izeneko tigrea.
- B. Asiako gizartearen ezaugarriak.
- C. Kuala Lumpurren elkarrekin bizi diren erlijio desberdinak.
- D. Kuala Lumpurreko eta Malaysiako kultura aniztasuna eta euren desberdintasunak.

14. Zeintzuk ziren 2000. urtean munduko dorrerik garaienak?

- A. New Yorkeko dorreak
- B. Petronas dorreak
- C. Eiffel dorrea
- D. Pisa dorrea

15. Esan ondorengo baieztapena okerra ala zuzena den. Okerra balitz zuzendu gaizki dagoena.

“Malaysia herrialde aberatsa bihurtu da, batez ere bere landa guneei esker eta Kuala Lumpur hiriburuari esker.”

.....

.....

.....

.....

16. Aipa itzazu Kuala Lumpurren eta Malaysian elkarrekin diren komunitate desberdinak eta euren erlijioak.

.....

.....

.....

.....

17. Ondorengo baieztapenen artean, zein da egia?

- A. Malaysian eta Kuala Lumpurren kultura desberdinak elkarrekin uztarturik bizi dira.
- B. Malaysiako eskola guztietan malaysiera eta ingelesa irakasten dira.
- C. Azken boladan kulturen arteko liskar bortitzak eman dira.
- D. Izandako liskarrak ez dituzte begi onez ikusten ez txinatarrek, ez hinduek.

18. Aukera ezazu “ezin esan ezpal berekoak direnik” esamoldearen sinonimo egokiena.

- A. Bandejaen jabe direnik
- B. Bihotz gabeak direnik
- C. Etxean otso eta kanpoan uso direnik
- D. Ahaide hurbilak direnik

19. Malaysian elkarrekin bizi diren hiru kulturak janzteko eta jan-edateko ohitura desberdinak dituzte oro har. Baina bada zerbait hiru kulturak onartuko luketena Malaysian. Aukeratu ondorengo baieztapenetatik guztiz zuzena litzatekeena.

- A. Malaysian edari alkoholodunak legalak direnez, hiru kulturatakoek edaten dituzte edari alkoholodunak.
- B. Malaysian hiru kulturatakoek jan dezakete behi xerra patata frijituekin.
- C. Malaysian emakume guztiak ilea agerian ibil daitezke.
- D. Malaysian edozein herritarrek jan dezake txorizo bokadilo bat.

20. Testuak dioen bezala, hiru kultura hauek zenbait gauzatan elkarri dioten errespetua agerian gelditzen da. Aipa itzazu bi adibide elkarri dioten errespetua adieraziko luketenak.

.....
.....
.....

21. Hasieran zertara iritsi ziren txinatarrak eta hinduek Malaysiara?

- A. Europarrek eraman zituzten Malaysia konkistatzeko.
- B. Bertako kautxu-arboladietan lana egitera.
- C. Britainiarren ejertzitoan indiar eta txinatar soldadu asko zeudelako.
- D. Britainiarrentzat interprete lanak egitera.

22. Testua honela amaitzen da: "Horixe da hain zuzen Kuala Lumpur Malaysiako tigrea otzantzeko bide bakarra." Bestalde, kontuan hartuz testu honen izenburua "Kuala Lumpur, Malaysiako tigrea" dela, zergatik tigrearen aipamen hori? Beste modu batean esanda, zergatik erabiltzen du tigrea hitza?

.....

.....

.....

23. Kuala Lumpurri eta Malaysiari buruz testuak dioena irakurri ondoren, zure ustez ba al dago nolabaiteko antzekotasunik herrialde hartan gertatzen denaren eta gure herrialdean gertatzen denaren artean? Baietz uste baduzu, idatzi ikusten dituzun antzekotasunak:

.....

.....

.....